

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4197

AGINDUA, 2020ko irailaren 29koa, Hezkuntzako sailburuarena, udal-titulartasuneko musika-ikastegientzako dirulaguntzen deialdia egiten duena.

Musika-irakaskuntzak irakaskuntza artistikoen erreferente nagusiak dira Euskadin. Tradizioz, xarma berezia izan dute gizartean, eta hori dela-eta toki-administrazioek eskaintzen dituzte.

Gizartean duten garrantziarengatik, udalen esfortzuagatik, eta herritarren prestakuntza sustatzeagatik, hezkuntzako administrazioak baliabideak kudeatu izan ditu, eremu hori antolatu, planifikatu eta finantzatzeko.

Ikasketa horietarako aurrekontuen bidez, irakaskuntza horiek Euskal Autonomia Erkidegoan normalizazio-prozesua izatea lortu nahi da, bai espazioan banatzeko orduan, bai eta irakaskuntza horietan ematen diren espezialitateak eta mailak orekatzeko orduan ere.

Musika-ikastegiaren helburu nagusia da tradizioan oinarritutako dantza eta musikaren alorrean prestakuntza praktikoa ematea, bai eta hala nahi dutenak irakaskuntza profesionaletarako gidatzea eta prestatzea ere. Kontserbatorioek eta baimendutako zentroek irakaskuntza arautua eskaintzen dute, eta musika-eskolek, berriz, irakaskuntza ez-arautua.

Agindu honen bidez, ikastegiok mantentzen lagundu nahi da, Hezkuntza Sailak ematen dien finantzaketa ezarritako ehunekora hurbilduz (2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erkundearen buruzkoa).

Laguntza hauek Hezkuntza Sailaren Dirulaguntzen 2020ko Plan Estrategikoaren barruan sartzen dira. Plana Hezkuntzako sailburuaren 2020ko martxoaren 3ko Aginduaren bidez onartu zen, eta Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratu. Plan horretan jasotzen da toki-administrazioek eskaintzen dituzten musika-irakaskuntza arautuak eta ez-arautuak finantzatzeko prozesuarekin jarraitu behar dela.

Europar Batasunak kulturarentzako estatu-laguntzei buruz dituen arauen barruan, 2014ko uztailaren 1ean indarrean jarri zen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez adierazten baita zenbait laguntza-kategoria bateragarriak direla barne-merkatuarekin, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuta (EBAO, L 187, 2014-06-26); aurrerantzean, erregelamendu horri 651/2014 Salbuespenen Erregelamendu Orokorra esango diogu. Erregelamendu horren 53. artikuluan ezarrita dago kulturarako eta ondarea zaintzeko laguntzak jakinarazteko betebeharririk ez duten kategoriakoak direla –53. artikuluen 3. apartatuan, funtzionamendurako laguntzak sartuta daude–.

Hori dela eta, agindu honek arautzen dituen dirulaguntzak Salbuespenen Erregelamendu Orokorrean sartuta egongo dira (651/2014 Erregelamendua, zeinaren bidez adierazten baita zenbait laguntza-kategoria bateragarriak direla barne-merkatuarekin, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuta).

Horregatik guztiagatik, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2020ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 27ko 13/2019 Legean aurreikusitakoa betez (hor esleitzen baitira udal musika-ikastegiei laguntzeko aurrekontu-partidak), honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren xedea.

Dirulaguntza-deialdia egitea, batetik, abenduaren 11ko 229/2007 Dekretuan araututa dauden eta udal-titulartasuna duten kontserbatorioetarako, eta bestetik, urriaren 27ko 289/1992 Dekretuak araututako udal musika-eskoletarako, 2019-2020 ikasturteko kostuak finantzatzen laguntze aldera.

2. artikulua.– Kreditu erabilgarria.

Helburu horretara, gehienez ere 9.453.888,80 euro bideratuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargura.

3. artikulua.– Onuradunak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea indarrean jarri zenean Euskal Autonomia Erkidegoan zeuden musika-ikastegi hauek, baldin eta hala inskribatuta badaude Euskal Autonomia Erkidegoko Ikastetxeen Erregist-roko atal espezifikoan:

a) Udal-titulartasuna duten musika-eskolak, irakaskuntza ez-arautua emateko baimena dutenak (urriaren 27ko 289/1992 Dekretua).

b) Udal-titulartasuna duten kontserbatorioak, irakaskuntza arautua emateko baimena dutenak (abenduaren 11ko 229/2007 Dekretua).

4. artikulua.– Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Diruz lagundu daitezke musika-ikastegien 2019-2020 ikasturteko langileen gastuak (irakasleenak eta irakasle ez diren langileenak) eta ekipamendu- eta funtzionamendu-gastuak, musika irakastearekin zuzeneko lotura duen edozertarako.

1.– Langile-kostuak.

- Langile-gastuak honela zehaztuko dira: kostu garbia, gizarte-segurantza, eta bestelakoak (beste aseguru batzuk).

- Irakasle ez diren langileak beste erakunde batzuetan ere aritzen badira, haien kostuak proportzioan kalkulatu dira, musika-eskoletan duten alduraldiaren kostua soilik kontuan hartuz.

- Zuzendaritza-lanen gastuak irakasle ez diren langileen gastutzat hartuko dira.

2.– Funtzionamendu-kostuak honako hauek dira:

- Azpiegituren eta tresna teknologikoen mantentze-, konponketa- eta kontserbazio-gastuak.

- Garbiketa-gastuak.

- Zerbitzuak: elektrizitatea, ura, gasa.

- Aholkularitzen eta zerbitzu juridikoen gastuak.

- Zentroaren aseguruak.

- Aparteko jardueretako bidaia-gastuak: joan-etorriak, mantenua, dietak.

- Marketin- eta publizitate-gastuak.

- Ustekabeko gastuak: konponketak, istripuak.
- Langileen kontratazioa kudeatzeari lotutako gastuak (azpikontratak edo kudeaketa-gastuak) funtzionamendu-gastutzat hartuko dira, eta ez langile-gastutzat.
- Irakasleen prestakuntzaren gastuak funtzionamendu-gastutzat hartuko dira.
- Musika-eskolak sortu bai baina onartzen ez dituen kostuak beste erakunde batzuek diruz lagundutako gastutzat hartuko dira, eta beste laguntza batzuen multzoan sartu beharko dira.
- Musika-eskolak beste erakunde batzuekin partekatzen baditu instalazioak, gastuak erakunde horien erabileraren proportzioan kalkulatu dira (guztizkoaren %).

3.– Baliabide materialei dagozkien gastuak ekipamendu-gastuak dira.

- Bulego-materiala. Material suntsikorra eta suntsiezina.
- Higigarriak.
- Erabiltzera eta zaintzera bideratutako tresnak eta materialak.
- Material didaktikoa: inprimatua, ikus-entzunezkoa eta multimedia.

4.– Gastu horiek IX. eranskinean jasoko dira (memoria ekonomikoa).

5. artikulua.– Betekizunak eta haien egiaztapena.

1.– Dirulaguntza lortzeko, eskatzaileek betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) 3. artikuluan aipatzen diren ikastegietako bat izatea. Egiaztapen hori ofizioz egingo da.

b) Erakunde eskatzailea ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluan 2. eta 3. puntuetan aurreikusitako egoeretan, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez, eta zehazki:

- Ez izatea dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko debekurik zigor- eta administrazio-arloan, eta ez izatea laguntzak jasotzeko legezko debekurik, ezta sexu-diskriminazioagatiko debekurik ere (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen berdintasunari buruzkoa).

- Erakundeek egiaztatu beharko dute egunean dauzkatela indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ere.

c) Kanpoan geratzen dira Europar Batasunarekin zorrak dituzten enpresak, laguntzak berreskuratzeke agindu bat jasoa dutenak, baldin eta Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpoko dela eta bateraezina barne-merkatuarekin eta krisialdian dauden enpresek, bat etorrita Krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko Gidalerroetan agertzen den definizioarekin (EBAO, C 249, 2014-07-31).

Aipatutako betekizunak betetzea beharrezkoa izango da onuradun izateko eta izaera hori dirulaguntzaren likidaziora arte mantentzeko.

2.– Agindu honetan araututako laguntzak emateko eskabideak aurkezteak berekin ekarriko du pertsona edo erakunde eskatzaile titularrek baimena ematea organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatu dezan bete egiten direla zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Hala ere, erakunde eskatzaileak espresuki uko ahal izango dio baimena emateari; kasu horretan, behar diren egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.

Pertsona edo erakunde titular eskatzaileak eskabide-ereduarekin batera datorren erantzukizunpeko adierazpena sinatuko du, zeinaren bidez formalki deklaratuko baitu betetzen dituela betebeharrak eta hitzemandu duela beteko dituela diruz lagundutako jarduerak dirauen bitartean:

a) Ebazpenean kontuan hartu diren inguruabarretan egindako edozein aldaketa jakinarazteko konpromisoa hartzen dute.

b) Erakunde esleitzatzaileak ez du inolako zigor penalik ez administrazio-zigorrik izan behar, dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dionik. Ez du dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekurik izan behar, batez ere sexu-diskriminazioagatik gertatutako debekurik (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrena).

c) Erakunde eskatzaileak egunean dituela dirulaguntzen itzulketaren ziozko betebeharrak.

d) Erakunde eskatzailea ez dagoela Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan 2. eta 3. apartatuetan jasota dagoen eta onuradun izatea eragozten duen beste edozein egoeratan.

e) Indarrean dagoen araudian laguntza hauen onuradun izateko ezarrita dauden betekizunak betetzen dituela eta egiazkoak direla eskabidean eta dokumentazioan bildutako datuak.

6. artikulua.– Izapideak.

1.– Eskararak <https://www.euskadi.eus> egoitza elektronikoen bidez baino ezin dira egin.

2.– Erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak egoitza elektronikoa honetan daude eskuragarri:

https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2019/musika-udal/y22-izapide/eu

3.– Pertsona eta erakunde interesdunek bitarteko elektronikoa erabiliz egingo dituzte eskaerak, kontsultak eta prozedura honetako gainerako izapideak, dirulaguntza onartzeko edo ukatzeko ebazpena eman arte, bai eta justifikazio-izapideak ere. Horretarako, egoitza elektronikoa honetara jo behar dute: <https://www.euskadi.eus>

https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2019/musika-udal/y22-izapide/eu

4.– Eskabidea aurkeztu ondorengo izapideak ere –dokumentazioa zuzentzea, espedientearen berrikustea– elektronikoki egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.– Eskatzaileek euskaraz nahiz gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta dokumentuak. Halaber, prozeduran zehar, eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da (Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a eta 6.1 artikulua).

6.– Eskabidea aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

7. artikulua.– Eskabideak eta dokumentazioa.

Eskabidearekin batera (I. eranskina), nahitaezko agiri hauek aurkeztu beharko dira, eta, horretarako, bide elektronikoa baino ezin izango da erabili:

1.– Musika-eskolen titularrak diren pertsonak edo erakundeek honako agiri hauek aurkeztuko dituzte:

a) «Musika-eskolako irakasleen ziurtagiria» (II. eranskina). Ziurtagiri horretan, 2019-2020 ikasturteko irakasleen izen-abizenak eta haiek irakasten emandako denbora –asteka adierazita–

agertuko dira. Irakas-denbora zuzena da irakasleek ikasturte osorako dagozkien ikasleei irakasten emandako denbora.

b) «Lehentasuna duten espezialitateetarako agiria / erregimen arrunta» izeneko dokumentua (III. eranskina), hala behar izanez gero. Ziurtagiri horretan, 2019-2020 ikasturteko erregimen arrunteko ikasleen zerrenda jasoko da, zehazki lehenetsitako espezialitateetan matrikulatuta daudenena.

c) Honako datu hauek jasoko dituen egiaztagiri bat (IV. eranskina):

- 2019-2020 ikasturtean errefortzuak jaso dituzten ikasleen zerrenda, beharrezkoa denean («x» batekin adierazi lehentasunezko espezialitateak).

- Hezkuntza arautuan (irakaskuntza profesionalak) 2019-2020 ikasturtean hasitako ikasleen zerrenda.

d) «2019-2020 ikasturteko ikasleen datuak» ziurtagiria (V. eranskina), non ikasleen datu guztiak jasoko diren. Datuok deialdia egiten laguntzeko erabilitako aplikazioan sartuko dira, eta bat etorri beharko dute Hezkuntza Sailak «Eskola jarduerako estatistikak» txostenean jasotakoekin; ezingo dira inoiz txostenean jasotakoak baino altuagoak izan. Alderik izanez gero, instantzia kudeatzaileak azken datu horiek erabiliko ditu.

2.– Ikasketa arautuak ematen dituzten ikastetxeen titular diren pertsonak edo erakundeek honako agiri hauek aurkeztuko dituzte:

a) «Irakasleen ziurtagiria» (VI. eranskina). Ziurtagiri horretan, irakaskuntza arautuko irakasle guztien zerrenda eta haiek ikasleei irakasten emandako denbora –asteka adierazita– agertuko dira. Irakas-denbora zuzena da irakasleek ikasturte osorako dagozkien ikasleei irakasten emandako denbora.

b) «Lehentasuna duten espezialitateetarako agiria» (VII. eranskina), beharrezkoa denean. Bertan, 2019-2020 ikasturtean oinarrizko irakaskuntzetako eta irakaskuntza profesionaletako lehentasunezko espezialitateetan matrikulatutako ikasleen datuak jasoko dira.

c) Honako datu hauek jasoko dituen egiaztagiria (VIII. eranskina):

- Hezkuntza arautuko 2019-2020 ikasturteko ikasleen datuak. Datuok deialdia egiten laguntzeko erabilitako aplikazioan sartuko dira, eta bat etorri beharko dute Hezkuntza Sailak «Eskola jarduerako estatistikak» txostenean jasotakoekin; ezingo dira inoiz txosten horretan jasotakoak baino altuagoak izan. Alderik izanez gero, instantzia kudeatzaileak azken datu horiek erabiliko ditu.

- Goi-mailako musika-ikastetxeetan 2019-2020 ikasturtean hasi diren ikasleen zerrenda, beharrezkoa denean.

3.– Pertsona eta erakunde eskatzaile guztiek (bai irakaskuntza arautuak ematen dituzten zentroak, bai ez-arautuak ematen dituztenak), halaber, finantzatutako jarduketaren gauzatzea eta diruz lagundutako gastuen eraginkortasuna justifikatu beharko dituzte, hauek aurkeztuta:

a) 2019-2020 ikasturtean egindako jardueren kostuari buruzko memoria ekonomikoa (IX. eranskina), toki-erakunde titularreko kontu-hartzaileak sinatua eta zigilatua. Honako datu hauek jasoko dira memorian:

- Zentroaren hasierako aurrekontua, exekutatuako gastu errealak eta izandako desbideratzeak. Informazio hori behar bezala banakatuta egon behar da, honako gastu hauetan: irakasleak, irakasle ez diren langileak, funtzionamendua eta ekipamendua.

- 2019-2020 ikasturtean zehar zentroak izandako diru-sarreraren (finantzaketa propioa eta matrikulak) eta dirulaguntzen banakatzea, zenbatekoak eta jatorria zehaztuz.

Multzo horretan sartuko da toki-erakundeak 2019-2020 ikasturteko gastuetarako zentroari egindako ekarpen totala, eta horrek finantzaketan zer ehuneko egiten duen. Ekarpen hori exekutututako gastuaren arabera kalkulatu da, eta, gehienez, % 52ko hobaria emango da (IV. Baremoaren b) apartatua).

- Matrikula-kostuen eta hileko eta hiruhileko kuoten ziurtagiria.

b) X. eranskina, «Kostuen justifikazioa», non zentroaren kostu osoa idazten baita (langile-gastuak, funtzionamendua eta ekipamendua). Irakasleen eta irakasle ez diren langileen gastuak adierazi beharko dira, zenbait zatitan banakatuak: soldata garbia, gizarte-segurantza, eta beste aseguru batzuk (elkarkidetz...). Toki-erakunde titularreko kontu-hartzaileak sinatu eta zigilatu beharko du.

Irakasleen eta irakasle ez diren langileen gastuak justifikatzeko, adierazitako langileen kontratuen edo Gizarte Segurantzako alta-ziurtagirien kopiak erantsiko dira; bestela, langile horien lan-egoera normalizatua egiaztatuko duten TC agiriak edo haien baliokideak erantsi beharko dira.

Erakundeak gorde beharko ditu fakturen eta funtzionamendu- eta ekipamendu-gastuen justifikagiriaren jatorrizko agiriak, legeak ezarritako epean. Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak, era aleatorioan, fakturak eta gainerako dokumentuak aurkezteko eska diezaioke (jasotako laguntza-ren % 25 justifikatu arte gutxienez).

Justifikagiriak benetakoak eta jatorrizkoak izango dira.

Pertsona edo erakunde titular onuradunek jatorrizko justifikagiriak zaintzapean eduki beharko dituzte, eta Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzaren eskura jarri, hark eskatzen baditu ere.

Justifikagiri horien bidez, 2019-2020 ikasturtean egindako gastuak justifikatu beharko dira.

c) Jarduerari buruzko memoria bat, besteak beste, gai hauek jasoko dituena:

– Egindako jarduerari buruzko azalpen labur bat.

– Programatutako helburuak zenbateraino lortu diren azaltzen duen informazioa.

– Eraitzen ebaluazioa eta hobetzeko proposamenak.

4.– Eranskinen ereduak hemen eskura daitezke: <https://www.euskadi.eus>

5.– Eskaera egiten duen erakundeko titularrak edo legezko ordezkariak sinatuta eta data jarrita aurkeztu behar da eskabidea.

6.– Eskatzailearen nortasun telematikoa egiaztatzea:

a) Eskabidea erakunde eskatzailearen ziurtagiri bidez sinatu baldin bada, ez da beharrezkoa izango ordezkari-tza-ahalordea egiaztatzea.

b) Aitzitik, pertsona fisiko baten ziurtagiriaren bidez identifikatuz gero, ordezkarien erregistro elektronikoa alta emanda egon gabe:

Erakundearen legezko ordezkaria izanez gero, legezko ordezkariak duen ordezkari-tza-ahalordea egiaztatzeke agiria aurkeztu beharko du.

8. artikulua.– Dirulaguntza hitzarmen bidez gauzatzea.

1.– Dirulaguntzaren onarpena formalizatzeko, agindu honen XI. eranskinean aipatzen den hitzarmena izenpetuko dute bai Hezkuntza Sailak, bai diruz lagundutako eskola eta kontserbatorioen titular diren udalek, 17. artikulua 1. apartatuan aipatzen den epea bukatu ondoren.

9. artikulua.– Jarraipen Batzordea.

Hezkuntza Sailak eta toki-erakunde bakoitzak izenpetutako hitzarmena, 8. artikuluan aipatzen dena, behar bezala betetze aldera, Jarraipen Batzorde bat eratuko da, eta kide hauek izango ditu:

– Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendaria edo hura ordezkatzen duen pertsona; batzordeburu jardungo du.

– Hezkuntzako ikuskatzaile bat, ikuskatzaile nagusiak izendatua.

– Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzako teknikari bat, idazkari jardungo duena.

Eudel elkarteko ordezkarri bat.

10. artikulua.– Jarraipen-batzordearen eginkizunak.

1.– Jarraipen-batzordeak gainbegiratuko du zenbateraino betetzen diren hitzarmena eta ikastegi bakoitzaren urteko plana, zeina udal-titulartasuneko musika-eskola edo kontserbatorio bakoitzaren esku egongo baita.

2.– Horretarako, Jarraipen Batzordeak, bigarren ordainketa egin aurretik, aztertuko ditu ikastegi eskabidearekin batera aurkeztu dituzten datuak, 7. artikuluko 3.c letran aipatzen den jarduera-memoria barne dela. Gainera, esleitu zaizkion eginkizunak betetzeko beharrezko ikusten dituen agiri osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu, eta ikastegiak gehienez bost eguneko epea izango du arrazoi edo justifikazio egokiak aurkezteko.

Agiria horiek aztertuta, Jarraipen Batzordeak txosten batean bilduko ditu bere balorazioak, gomendioak eta ondorioak. Txostena Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari helaraziko zaio, eta, hark oniritzia emanaz gero, azken ordainketa egingo da.

11. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabidea eta dokumentazioa aurkezteko epea hilabete bat izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

12. artikulua.– Eskabidea eta dokumentazioa zuzentzea.

Dirulaguntzaren eskabidea behar bezala beteta ez badago edo nahitaezko dokumentazioa falta bada, interesdunari eskatuko zaio 10 egun baldinuzko epean hutsa zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko. Epe horretan eskabidea zuzendu ez bada, ulertuko da eskabidean atzera egin dela. Horretarako, ebazpena eman beharko da aurretiaz (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua).

Akatsak zuzentzeko jakinarazpena bitarteko elektronikoz egingo da. Jakinarazpen elektronikoa Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoen «Nire Karpeta» atalean kontsultatu beharko da.

Interesdunak jakinarazpenaren jasotze-agiria elektronikoki sinatzen duenean, jakinarazpena egintzat emango da. Jakinarazpena bidali eta interesduna hamar egun naturaleko epean ez bada edukira sartu, jakinarazpena ezetsizat hartuko da, eta izapidea gauzatzat. Prozedurak jarraitu

egingo du, salbu eta ofizioz edo hartzaileak eskatuta egiaztatzen bada teknikoki edo materialki ezinezkoa dela sartzea.

Hori hala izanik ere, organo kudeatzaileak beste aukera bat ere badu: interesdunei jakinarazpen-abisuak bidaltzea, eskabideetan jarri zituzten telefono mugikorretara eta helbide elektronikoetara SMSak edo mezu elektronikoak bidaliz. Abisu horiek ez dute inolaz ere jakinarazpen-baliorik izango.

13. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariak kudeatuko ditu deialdi honetan aurreikusitako laguntzak.

14. artikulua.– Laguntzak emateko prozedura.

1.– Eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiei emango zaie dirulaguntza. Horretarako, deialdi honetarako dagoen kreditua hainbanatu egingo da dirulaguntzaren onuradunen artean.

2.– Ikastegi bakoitzari zenbateko dirulaguntza dagokion kalkulatzeko, kontuan hartuko da erabilgarri dagoen aurrekontu-partida eta zenbat ordu finantzarri dauden, eta, horretarako, agindu honetako Hezkuntza Programa Finantzarriaren baremoetan (21. artikuluan jasoak) ezarritako irizpideak aplikatuko dira, eta, gero, dirulaguntza honetarako dagoen zenbateko osoa hainbanatuko da haien artean.

3.– Nolanahi ere, musika-ikastegi bakoitzari ematen zaion dirulaguntzak egundo ere ez du gaindituko aurrekontu osoaren % 33. Ondorio horietarako, irakasle ez diren langileen gastuen eta ekipamendu- eta funtzionamendu-gastuen batura ez da izango aurrekontu osoaren % 25 baino gehiago.

4.– Finantza daitezkeen orduak direla-eta ateratzen den dirulaguntzak muga hori gainditzen badu, soberakina gainerako eskolen dirulaguntzetara bideratuko da.

15. artikulua.– Ebazpena, errekursoak, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazpen-modua eta publikotasun-prozedura.

1.– Hezkuntzako sailburuordeak ebazpena eman eta jakinaraziko du, gehienez ere sei hilabeteko epean, agindu hau argitara ematen den egunetik hasita. Ebazpen horretan, eskatutako dirulaguntzak eman ala ez erabakiko da. Emandako dirulaguntzen kasuan, honako hauek adieraziko dira: erakunde onuraduna, dagokion musika-ikastegia eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa. Eskabidea ukatzen bada, berriz, horretarako arrazoiak adieraziko dira.

2.– Ebazpena argitara emango da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taula elektronikoan (<https://www.euskadi.eus/y22-ediktu/eu/>), eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu jakinarazpen-ondorioak. Ebazpen-epea igaro ondoren horren berri jaso ez bada, eskabidea ezetsi egin dela ulertu ahal izango da (39/2015 Legea, urriaren 1eko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).

3.– Aurrekoa hala izanik ere, organo kudeatzaileak interesdunei jakinarazpen-abisuak bidali ahal izango dizkie, SMSak edo mezu elektronikoak igorri eskabideetan jarri zituzten telefono mugikorretara eta helbide elektronikoetara. Abisu horiek ez dute inolaz ere jakinarazpen-baliorik izango.

4.– Agindu honen babesean emandako dirulaguntzen onuradunen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, denek horren berri izan dezaten.

5.– Ebazpenek ez diote amaiera ematen administrazio-bideari, eta, haien aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikulua).

6.– Onuradunei dirulaguntzak emateko eta, hala dagokionean, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi den eta oraindik izapidetze-prozesuan dagoen edozein itzulketa- edo zigor-prozedura amaitzea.

16. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea.

Agindu honen babesean emandako dirulaguntzak honela ordainduko dira:

a) Lehen ordainketa, dirulaguntzaren % 0,90ekoa, 17. artikularen 1. apartatuan ezarritako epea amaituta, eta 8. artikuluan adierazitako hitzarmena izenpetu ondoren.

b) Bigarren ordainketan, gainerakoa ordainduko da: % 99,10.

17. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategiaren 50.2 artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetan jasotzen diren betebeharez gainera, agindu honetan arautzen diren dirulaguntzen onuradunek betebeharrak izango dituzte:

1.– Emandako dirulaguntza onartzea eta 8. artikuluan aipatutako hitzarmena sinatzea. Horretarako, hamar eguneko epea izango dute, ebazpena Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoen iragarki-taulan argitaratzen denetik hasita: <https://www.euskadi.eus/y22-ediktu/eu/>. Hala egin ezean, pertsona edo erakunde titularrak dirulaguntzari uko egin diola ulertuko da.

2.– Laguntza zertarako eman den, hartarako erabili beharko da, ez beste ezertarako.

3.– Hezkuntza Ikuskaritzaren esku jartzea dirulaguntza eskatzeko aurkeztutako dokumentazioa, horretarako oinarritzat hartu dena, gainbegiratu edo ikuskatu beharreko beste elementu bat baita.

4.– Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, beren eginkizunetan dihardutela, deialdi honen kontura eskuratutako dirulaguntzei buruz eskatzen dieten informazioa ematea.

5.– Helburu bererako beste dirulaguntzarik edo laguntzarik lortuz gero, dirulaguntza eman duen Administrazioari horren berri ematea.

6.– Dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik aurrera, hedatzeko edozein bitartekotan jakinaraztea, logotipo ofizialak jarritz, diruz lagundutako jarduerak Hezkuntza Sailaren laguntza jaso duela, eta Eusko Jaurlaritzako Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari dei egitea, diruz lagundutako jarduerarekin zerikusia duten ekitaldi publikoetara joan dadin.

18. artikulua.– Ez-betetzeen araubidea eta itzulketa-prozedura.

1.– Erakunde onuradunak esleitutako eta jasotako zenbatekoa itzultzeko betebeharra izango du, bai eta dirulaguntzen arloan aplikatzekoa den berandutze-interesa ere, baldin eta honako egoera hauetako bat gertatzen bada:

a) Erakunde onuradunak dirulaguntza ez erabiltzea eskatu zen eta eman zen berariazko xederako.

b) Dirulaguntza ematea eragin zuen jarduera ez gauzatzea.

c) Interesatu zitzaizkion xede jakinetarako aplikatu izana ez justifikatzea.

d) Oro har, ez betetzea azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. tituluan (1998ko urtarrilaren 19ko EHAA), Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua-ren 91., 92. eta 93. artikuluetan, agindu honetan edo dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako betebeharrak; kasu horietan, jasotako zenbatekoak osorik edo partez itzuli beharko dira, gehi dagokien berandutze-interesa, eta, hala dagokionean, zehapenak ezarri ahal izango zaizkie.

2.– Dirua itzultzeko, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako prozedura beteko da –azken dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren pentzudan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen da eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dira–. Hori gorabehera, bideratu beharreko beste ekintza guztiak bideratu ahal izango dira. Bestalde, aipatutako zenbatekoak diru-sarrera publikotzat joko dira, legezko ondorio guztietarako.

3.– Itzultzeko prozedura hasi baino lehen, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 92.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera –zeinaren bidez Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen baita–, justifikazioa aurkezteko eskatuko zaie erakunde onuradunei.

4.– Itzultzeko prozedurari dagokionez, honela jokatu da:

a) Prozedura hasteko ardura Hezkuntzako sailburuordearena izango da. Prozedura hasiz gero, eten egingo dira oraindik egiteke dauden ordainketak.

b) Ebazpen horretan, prozedurari hasiera emateko arrazoiak jasoko dira, eta 15 eguneko epea emango da egokitze jotako alegazioak egiteko.

c) Alegazioak jaso ondoren, edo epea igaro bada alegaziorik jaso gabe, amaiera emango zaio prozedurari, Hezkuntzako sailburuordearen ebazpen baten bidez.

Hamabi hilabetekoa izango da itzulketa-prozedura ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea.

Ebazpenak xedatzen badu arauak ez direla bete, laguntza jasotzeko eskubidea galdu dela deklaratu da, eta, hala badagokio, adieraziko da dagozkion kopuruak itzuli behar zaizkiola EAEko Diruzaintza Nagusiari, bai eta laguntza ordaindu zenetik dirulaguntzen arloan aplikatu behar diren berandutze-interesak ere; horretarako epea, gehienez ere, bi hilabetekoa izango da, ebazpena jakinarazten denetik aurrera. Epe hori borondatezko alditzat joko da.

d) Borondatezko epean laguntza itzultzen ez bada, dagozkion zenbatekoak kobratuko dira, indarrean dagoen araudiari jarraikiz.

19. artikulua.– Laguntzen pilaketa eta mugak.

Beste administrazio publiko batzuek nahiz erakunde pribatuek ematen dituzten laguntzak, dirulaguntza honen helburu bererako badira, bateragarriak izango dira agindu honek deitutakoekin, baldin eta ez badute gainditzen Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Salbuespenen Erregelamendu Orokorraren 8. artikuluan ezarritako muga (EBAO, L187, 2014ko ekainaren 26koa). Laguntza horiek Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari jakinarazi behar zaizkio.

Muga hori gaindituz gero, arau honen babesean emandako laguntzari soberakinaren zenbatekoa kenduko zaio.

20. artikulua.– Datu pertsonalak babestea.

Kapitulu honetan aipatzen diren prozeduretan aurkeztutako eskabideetan eta dokumentuetan jasotako datu pertsonalen tratamendua Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak egingo du, datuen tratamenduaren «arduradun» gisa. Datu pertsonal horien tratamenduaren xedea izango da deialdi hau kudeatzea eta ebaztea. Horren interes publikoan eta dirulaguntzetan parte hartzeko eskaeran oinarritzen da xede hori.

Interesdunek eskubidea dute beren datuak irispidean izateko, zuzentzeko, ezerezteko eta eramateko, bai eta datuen tratamendua mugatzeko nahiz tratamenduaren aurka egiteko ere; eskubide horiek baliatzeko, idazki bat bidali behar dute Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzara (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz). Gainera, kontsultak egin ahal izango dizkiote Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1.n) artikuluari jarraikiz.

Honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra); 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa; 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa, eta aplikatu beharreko gainerako araudia.

21. artikulua.– Hezkuntza Programa Finantzarria: baremoak.

Balorazioa hezkuntza-programa finantzarri honen bidez egingo da:

I. baremoa: irakaskuntza ez-arautua.

1.– Maila eta atal hauetan matrikulatutako ikasle bakoitzeko, irakas-denbora hauek jasoko dute laguntza.

1. maila, edo lehen harremana hasteko maila:	Denbora finantzarria
Urte naturalean 5 urte edo gutxiago duten ikasleak	5 minutu pertsona bakoitzeko
Urte naturalean 6 edo 7 urte duten ikasleak	15 minutu pertsona bakoitzeko

2. maila	Kurtsoa	Denbora finantzarria
Hastapen-kurtsoa (zuzenean sartzekoa: 1. maila egin ez duten ikasleak).		20 minutu pertsona bakoitzeko
Ikasle arruntak: musika-tresna edo bakarkako kantua	Kurtso guztiak	50 minutu pertsona bakoitzeko
Errefortzua jasotzen duten ikasleak: maila honetan musika-tresna edo bakarkako kantuan matrikulatutako ikasleen % 15, gehienez ere. Askoz jota 50 ikaslek jasoko dute dirulaguntza	Bi ikasturtez soilik	90 minutu pertsona bakoitzeko
Koru-kantua espezialitate gisa	1. kurtsoak	15 minutu pertsona bakoitzeko
Koru-kantua espezialitate gisa	Gainerako kurtsoak	5 minutu pertsona bakoitzeko
Dantza tradizionala baino ez	6 kurtso, gehienez ere	10 minutu pertsona bakoitzeko

2020ko urriaren 13a, asteartea

3. maila	Kurtsoa	Denbora finantzagarria
Ikasle arruntak: musika-tresna edo bakarkako kantua	6 kurtso, gehienez ere	40 minutu pertsona bakoitzeko
Talde-jarduerak soilik	6 kurtso, gehienez ere	5 minutu pertsona bakoitzeko
Errefortzua jasotzen duten ikasleak: maila honetan musika-tresna edo bakarkako kantuan matrikulatutako ikasleen % 10, gehienez ere. Askoz jota 25 ikaslek jasoko dute dirulaguntza	Bi ikasturtez soilik	120 minutu pertsona bakoitzeko
Dantza tradizionala baino ez	6 kurtso, gehienez ere	10 minutu pertsona bakoitzeko

Bigarren espezialitatea egiten duten IKASLEAK (matrikulatutako ikasleen % 10 gehienez ere)	Denbora finantzagarria
2. maila	30 minutu pertsona bakoitzeko
3. maila	30 minutu pertsona bakoitzeko

4. maila	Kurtsoa	Denbora finantzagarria
Talde-jarduerak soilik	Kurtso guztiak	5 minutu pertsona bakoitzeko
Ikasle arruntak: musika-tresna edo bakarkako kantua (Matrikulatutako ikasleen % 10 gehienez ere)	6 kurtso, gehienez ere	30 minutu pertsona bakoitzeko

Beste irakaskuntza batzuk: hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten eta aurreko mailetan sartuta ez zeuden ikasleentzat soilik.	Adina	Denbora finantzagarria
Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleak.	14 urte artekoak	20 minutu pertsona bakoitzeko
Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleak.	14 urtetik gorakoak	10 minutu pertsona bakoitzeko

Alderik badago mailetatik ateratako irakas-denbora finantzagarriaren eta II. eranskinean agertzen den irakasleen guztizko eta zuzeneko irakas-denboraren artean, bien arteko denborarik laburrena lehenetsiko da. Denbora hori hautatuko da irakas-denbora finantzagarri moduan. Hautatutako denbora horri bi hobari hauek erantsiko zaizkio:

2.– Lehenetsuneko interesa duten espezialitateei laguntza ematea.

lehenetsuneko interesa duten musika-tresnak hauek dira: biola, biolontxelo, kontrabaxua, fagota, oboea, tronpa, Tronboia, tuba eta harpa.	
Irakaskuntza ez-arautua	Denbora finantzagarria
2. eta 3. mailetako ikasle arruntak.	30 minutu pertsona bakoitzeko
2. eta 3. mailetako ikasleak, errefortzua jaso dutenak.	60 minutu pertsona bakoitzeko

3.– Ikasleak irakaskuntza arautuan sartzea.

Irakaskuntza profesionalak	Denbora finantzagarria
Sartzen den pertsona bakoitzeko (Aurreko ikasturtean 2. eta 3. mailetan matrikulatuta egonik errefortzua jaso duten ikasleen kopuruaren % 50 finantzatu ahal izango da, gehienez ere).	300 minutu pertsona bakoitzeko

4.– I. baremoan guztira diruz lagunduko den ordu-kopurua kalkulatzeko, 1., 2. eta 3. ataletan ezarritako irizpideak aplikatuta ateratzen den batura erabiliko da.

II. baremoa: irakaskuntza arautuak.

1.– Denbora hauei emango zaie laguntza, irakaskuntza mota honetan matrikulatutako ikasle bakoitzeko:

Graduak	Kurtsoak	Denbora finantzagarria
Oinarrizkoa	1., 2., 3. eta 4. kurtsoak	50 minutu pertsona bakoitzeko
Profesionala	1. eta 2. kurtsoak	125 minutu pertsona bakoitzeko
Profesionala	3. eta 4. kurtsoak	160 minutu pertsona bakoitzeko
Profesionala	5. eta 6. kurtsoak	175 minutu pertsona bakoitzeko

Alderik badago gradu horietatik ateratako irakas-denbora finantzagarriaren eta VI. eranskinean agertzen den irakasleen guztizko eta zuzeneko irakas-denboraren artean, bien arteko denborarik laburrena hartuko da kontuan. Hautatutako denbora horri bi hobari hauek erantsiko zaizkio:

2.– Lehenetsunezko interesa duten irakaskuntzak honela lagunduko dira diruz:

Lehenetsunezko interesa (biola, biolontxelo, kontrabaxua, fagota, oboea, tronpa, tronboia, tuba eta harpa).	Denbora finantzagarria
Oinarrizko gradua	30 minutu pertsona bakoitzeko
Gradu profesionala	60 minutu pertsona bakoitzeko

3.– Goi-mailako musika-ikastetxe batean hasten den eskolako ikasle bakoitzarengatik honako denbora hauek lagunduko dira diruz:

Goi-mailako ikastetxe batean hastea	400 minutu pertsona bakoitzeko
-------------------------------------	--------------------------------

4.– II. baremoan guztira diruz lagunduko den ordu-kopurua kalkulatzeko, 1., 2. eta 3. apartatuetan ezarritako irizpideak aplikatuta ateratzen den batura erabiliko da.

III. baremoa: irakaskuntzako kostuak.

Orduko batez besteko kostua honela kalkulatu da: eskolaren guztizko kostua zati astean emandako eskola-orduen kopurua (zuzeneko irakas-denbora). I. eta II. baremoetan finkatutako diruz lagundu daitekeen irakas-denborari hobari-ehuneko jakin bat aplikatuko zaio, kostuaren arabera, honako taula hau kontuan hartuta:

Orduko kostuak	Hobariaren ehunekoa
1.436 euro baino gehiago asteko irakas-ordu bakoitzeko	% 30
1.285 eurotik 1.435 eurora bitartean asteko irakas-ordu bakoitzeko	% 28
1.136 eurotik 1.284 eurora bitartean asteko irakas-ordu bakoitzeko	% 24
979 eurotik 1.135 eurora bitartean asteko irakas-ordu bakoitzeko	% 18
Gehienez ere 978 euro asteko irakas-ordu bakoitzeko:	0

Irakasle ez diren langileen gastuen eta ekipamendu- eta funtzionamendu-gastuen batura ez da izango aurrekontu osoaren % 25 baino gehiago.

IV. baremoa: toki-finantzaketa.

Toki-erakunde batek ikastegiaren gastu arruntaren % 25 gutxienez finantzatzen duen kasuetan, hobari hauek aplikatuko zaizkio I. eta II. baremoetan finantzarritzat jotako denborari:

Finantzaketaren ehunekoak	Ordu finantzarriak
Finantzaketaren % 25 gehienez ere	Ordu horien % 25
Gutxienez % 25 eta gehienez % 52	% 2 gehiago puntu bakoitzarengatik

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetako dirulaguntzak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren mende egongo dira.

Agindu hau administrazio publikoen dirulaguntzak arautzen dituzten printzipioei jarraikiz ebatziko da –publikotasunaren, lehiaren eta objektibotasunaren printzipioak–, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginean ezarritako baldintzetan, zeina azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu baitzuen, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan zehaztutako oinarritzako araudiaren arabera, eta laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko gainerako xedapenekin bat etorritik; horrez gain, erabilgarri dauden baliabide ekonomikoak aplikatuko dira, agindu honetan ezarritako irizpideen arabera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote interesdunek Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko

2020ko urriaren 13a, astearta

Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua aipatutako aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Autonomia Erkidegoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 29a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

2020ko urriaren 13a, astearta

I. ERANSKINA
ESKABIDEADIRULAGUNTZAK UDAL-TITULARTASUNEN MUSIKA-IKASTEGIEI – MUSIKA-IKASTEGIEN
TITULARRAK DIREN TOKI-ERAKUNDEEI

(*) nahitaezko eremuak

Eskatzailea *

 Titularra Ordezkarria

Datu pertsonalak

Titularra

Izena / Erakundearen izena *

Telefonoa

Lehen abizena*

Bigarren abizena*

Identifikazio-dokumentua *

Zenbakia *

Zein lurraldetan/probintzian dauden erakunde eskatzailearen datu fiskalak *

Ordezkarria

Izena / Erakundearen izena *

Telefonoa

Lehen abizena*

Bigarren abizena*

Identifikazio-dokumentua *

Zenbakia *

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala *

 Elektronikoa

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza *

 Euskara

Gaztelania

Abisuak jasotzeko datuak

Helbide elektronikoa edo SMS bidezko doako abisuen sistema erabil dezakezu. Sistemak abisatu egingo dizu jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen zaizun bakoitzean.

Helbide elektronikoa edo telefono-zenbaki bat baino gehiago eman ez gero, bereiz itzazu puntu eta koma bidez [;].

Helbide elektronikoa: _____

SMSa: _____

Erantzukizunpeko adierazpenak

Dokumentu hau izenpetzen duenak gaitasun egiaztatua behar du berak ordezkatzeko duen enpresaren izenean jarduteko. Eskumeneren delegazioz izenpetzen badu, espresuki adierazi behar da zer administrazio-egintzaren bidez eman zaion delegazioa.

Bateragarritasun-adierazpenak

Erakunde eskatzailea(k):

- Ez da laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin administrazio publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.
- Administrazio publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza eskatu dio (xede eta helburu berarekin), eta hark eman egin dio (IX. eranskinean, «Memoria ekonomikoa» delakoan, zehaztu beharko da, hala badagokio).
- Administrazio publiko edo erakunde pribatuen bati laguntza eskatu dio (xede eta helburu berarekin), baina erantzunaren zain dago (IX. Eranskinean, «Memoria ekonomikoa», delakoan zehaztu beharko da, hala badagokio).

Berariazko adierazpenak

Erakunde eskatzailea(k):

- o Dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatuz gero, horren berri emateko konpromisoa hartzen du.

Bestelako adierazpenak

Aitortzen dut erakunde eskatzailea(k):

- o Ez daukala dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiborik.
- o Ez dagoela dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko desgaitzen duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatiko¹ lege-debekuen eraginpean.
- o Egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta
 - BAIMENA ematen diola organo kudeatzaileari egiaztapen horiek behar beste aldiz eskatzeko; horretarako, ez du haien baimenik behar izango, betiere azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.3 artikulua arabera (1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena).
 - BAIMENIK EZ diola ematen organo kudeatzaileari egiaztapen horiek eskatzeko. Kasu horretan, erakunde eskatzaileak aurkeztu beharko ditu, erregelamenduz aurreikusitako baldintzetan.
- o Entitate eskatzailea ez dagoela sartuta dirulaguntzak jasotzeko bateraezintasunen edo debekuen inolako kausatan, ez eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan onuradun ez izateko aurreikusten diren inguruabarretan ere (BOE, 276. zk.; 2003ko azaroaren 18koa).
- o Bat etorri Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikulua erekin, onuradun den aldi osoan betekizun horiek betetzen jarraitzeko konpromisoa hartzen duela, eta betekizun horietan aldatetarik gertatuz gero, horien berri emango diola instrukzio-organoiari.
- o Betetzen dituela indarrean dagoen legediak laguntza hauek jasotzeko ezarritako baldintzak.
- o Benetakoak direla eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan jasotako datuak.

¹ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak azken xedapenetako seigarrenean dioenaren arabera.

(e)n,

(Tokia)

(Data)

(e)an

(Ordezkararen sinadura)

Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan –Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko– eta otsailaren 25eko 2/2004 Legean –Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa– ezarritakoarekin bat etorri, deialdiko parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, fitxategi batean sartuko dira, deialdi hau eta beronekin zerikusirik duen beste edozein prozedura edo administrazio-espeditente kudeatzeko, bai eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapenaren berri emateko ere. Ikastetxeen Zuzendaritza da fitxategi horren arduraduna. Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezereztzeko eta datuen aurka egiteko eskubideez baliatzeko, ikastetxeen Zuzendaritzara jo beharko da, honako helbide honetara zuzenduta: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, deialdi honetan parte hartzen duten lagunek baimena ematen dute fitxategian jasotako datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko batzuei emateko, deialdiaren xedearekin bat datozen helburuetarako. Era berean, baimena ematen diote ikastetxeen Zuzendaritzari, beste erakunde publiko batzuetan egiaztatutako dokumentuak benetakoak direla.

Eskabidea osatzeko argibideak

Eskatzailea

Zure izenean ari bazara: (ikastegiaren titulartasuna eskaera egiten duenaren izenean badago)

- *Eskatzailea* atalean, aukera ezazu *Titularra*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete itzazu *titularrari* dagozkion datuak.
- Sina ezazu eskabidea.

Beste pertsona baten ordezkari gisa ari bazara: (ikastegiaren titulartasuna bigarren pertsona baten izenean badago eta eskaera zuk egingo baduzu)

- *Eskatzailea* atalean, aukera ezazu *Ordezkaria*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete itzazu ordezkatzan duzun pertsonaren datuak *Titularra* atalean, eta zureak *Ordezkaria* atalean.
- Sina ezazu eskabidea.

Ikastegiaren titulartasuna erakundearen izenean badago eta zu ordezkaria bazara

- *Eskatzailea* atalean, aukera ezazu *Ordezkaria*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete ezazu *Titularra* atala erakundearen datuekin eta *Ordezkaria* atala zure datuekin.
- Sina ezazu eskabidea.

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Jakinarazpenak eta komunikazioak kanal elektronikotik jasotzeko aukera duzu. [Nire karpeta](#) guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Bertan sartzeko, [onartutako ziurtagiri elektronikoko](#) bat izan behar duzu.

Oharra: 10 egun igaro eta dagokion jakinarazpenean sartu ez bazara, ulertuko dugu ez duzula onartu. Ondorioz, izapidea egintzat joko da, eta prozedurak aurrera egingo du.

2020ko urriaren 13a, asteartea

II. ERANSKINA
IRAKASKUNTZA EZ-ARAUTUA
MUSIKA-ESKOLAKO IRAKASLEEN ZIURTAGIRIA

Zentroaren izena: _____

I. baremorako:

Plaza bakoitzeko irakasle titularren zerrenda eman behar da, 2019-2020 ikasturtean 1., 2., 3. eta 4. mailetan eta beste ikasketa batzuetan matrikulatuta dauden eta laguntza jaso dezaketen ikasleei astean ematen dieten irakas-denbora zuzena adierazita (irakasle bat lerro bakoitzean).

Orduak													
		1		2		3		4		Beste ira-kaskuntza		Ordu guztiak	
	NAN edo inizialak*	Ord.	Min.	Ord.	Min.	Ord.	Min.	Ord.	Min.	Ord.	Min.	Ord.	Min.
1													
Guztira													
Guztira, minututan													

+ Lerro Berria

Astean euskaraz emandako minutu-kopuru osoa	
Emakumeen kopurua, irakasle-kopuru osoarekiko	

Irakas-denbora zuzena zera da: irakasleek ikasturte osorako dagozkien ikasleei irakasten emandako denbora.

*Irakasleen inizialak adieraztean, honako hurrenkera honi jarraituko zaio: bi abizenak eta izena. Bi abizenen lehenengo bi letrak eta izenaren lehenengo letra idatzi behar dira, guztira 5 letra eginez.

III. ERANSKINA

IRAKASKUNTZA EZ-ARAUTUA LEHENTASUNA DUTEN ESPEZIALITATEETARAKO AGIRIA
ERREGIMEN ARRUNTA

Zentroaren izena: _____

I. baremorako:

2019-2020 ikasturtean lehentasunezko espezialitateetan matriculatutako erregimen arrunteko ikasleak bakarrik adieraziko dira.

Lehentasuna duten espezialitateak bakarrik	2. maila		3. maila	Emakumeak	Guztira
Biola					
Biolontxelo					
Kontrabaxua					
Fagota					
Oboea					
Tronpa					
Tronboia					
Tuba					
Harpa					
Guztira					

Tresna bi edo gehiago ikasten duten ikasleak bakarrik leku batean ager daitezke.

Ez dago laguntza berezia hartzen duten ikasleen datuak sartzerik, ohiko ikasleenak bakarrik.

2020ko urriaren 13a, asteartea

IV. ERANSKINA

IRAKASKUNTZA EZ-ARAUTUA

LAGUNTZA BEREZIA HARTZEN DUTEN IKASLEEN ZIURTAGIRIA / IRAKASKUNTZA ARAUTUAN SARTZEA

Zentroaren izena: _____

I. baremorako:

- **LAGUNTZA BEREZIA HARTZEN DUTEN IKASLEAK ETA HAIEN ESPEZIALITATEAK (2019-2020 ikasturtea).**

Lehentasuna duten espezialitateak x baten bidez adieraziko dira:

NAN edo inizialak*	2. maila	3. maila	4. maila	Adina	Espezialitatea	Lehen.	Urtea
	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>			<input type="checkbox"/>	_____
Guztira	0	0	0				

+ Lerro Berria

Ikaslearen NANA edo bi abizenen eta izenaren inizialak adieraziko dira. Horretaz gain, matrikulatuta dagoen maila zehaztuko da (x baten bidez), espezialitatea eta zenbat urte daraman laguntza berezia hartzen (1 edo 2).

Nahiz eta laguntza berezia jaso duten 2. eta 3. mailako ikasleak bakarrik finantzatzen diren, laguntza berezia hartzen duten ikasle guztiek agertu behar dute, zeren eta Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak dokumentu honen kopia bat helaraziko baitio Ikuskaritzari.

- **IRAKASKUNTZA ARAUTUAN SARTU DIREN IKASLEAK (IKASKETA PROFESIONALAK)**

2019-2020ko ikasturtean irakaskuntza profesionaletan sartu diren ikasleen zerrenda:

	NAN edo inizialak*	Irakaskuntza profesionaleko zer ikastetxe araututan sartu den	Kurtsoa	Espezialitatea
1				

+ Lerro Berria

Aurreko ikasturteko 2. eta 3. mailako laguntza bereziko ikasle-kopuru osoaren % 50 finantzatu ahal izango da, gehienez ere.

*Ikasleen inizialak adieraztean, honako hurrenkera honi jarraituko zaio: bi abizenak eta izena. Bi abizenen lehenengo bi letrak eta izenaren lehenengo letra idatzi behar dira, guztira 5 letra eginez.

Emakume kopurua, laguntza berezia hartu duen ikasle-kopuru osoarekiko	
Emakume kopurua, irakaskuntza arautuan sartu den ikasle-kopuru osoarekiko	

V. ERANSKINA
IRAKASKUNTZA EZ-ARAUTUA
2019-2020KO IKASTURTEKO IKASLEEN DATUAK
(I. BAREMOA)

Zentroaren izena: _____

Irakaskuntza ez-arautuetako ikasleak

Atal bakoitzean, ikasle kopuru osoa adieraziko da.

Ikasle batek 2. eta 3. mailetan espezialitate bat baino gehiago egiten duenean, zenbatzeko orduan, espezialitate bat bakarrik hartuko da kontuan.

Ikasle batek talde-jarduera batean baino gehiagotan parte hartuz gero, zenbatzeko orduan, jarduera bat bakarrik hartuko da kontuan.

1. mailan	Ikasle kopurua
Urte naturalean 5 urte edo gutxiago duten ikasleak	
Urte naturalean 6 edo 7 urte duten ikasleak	
1. mailan, guztira	

2. mailan	Ikasle kopurua
Hastapeneko kurtsoa (zuzenean sartu direnak; hau da, 1. maila egin ez duten ikasleak).	
Musika-tresna edo bakarkako kantua, kurtso guztietan. Ohiko matrikulazioa bakarrik.	
Errefortzua jaso dutenak (maila honetan musika-tresna edo bakarkako kantuan matrikulatutako ikasleen % 15, gehienez ere).	
Kantu korala, espezialitate gisa soilik. 1.kurtsoa.	
Kantu korala, espezialitate gisa soilik. Beste kurtso guztietan.	
Dantza tradizionala bakarrik. 6 kurtso gehienez.	
2. mailan, guztira	

3. mailan	Ikasle kopurua
Musika-tresna edo bakarkako kantua, 6 kurtso gehienez ere. Ohiko matrikulazioa bakarrik.	
Talde-jarduerak soilik, 6 kurtso gehienez ere.	
Errefortzua jaso dutenak (maila honetan, musika-tresna edo bakarkako kantuan matrikulatutako ikasleen % 10, gehienez ere).	
Dantza tradizionala bakarrik, 6 kurtso gehienez ere.	
3. mailan, guztira	

4. mailan	Ikasle kopurua
Talde-jarduerak soilik	
Ohiko matrikulazioan: musika-tresna edo bakarkako kantua (zentroko kopuru osoaren % 10 gehienez ere)	
4. mailan, guztira	

Bi espezialitate egiten dituzten ikasleak (kopuru osoaren % 10 gehienez ere)	Ikasle kopurua
2. maila	
3. maila	

Beste ikasketa edo jarduera batzuk:	Ikasle kopurua
Hezkuntza-laguntza jasotzeko premia espezifikokoak dituzten eta aurreko mailetan sartuta ez dauden ikasleentzat bakarrik	
Hezkuntza-laguntza jasotzeko premia espezifikokoak dituzten ikasleak, 14 urte artekoak	
Hezkuntza-laguntza jasotzeko premia espezifikokoak dituzten ikasleak, 14 urtetik gorakoak	
Jarduera honetan, guztira	

Emakume kopurua mailaz maila, kopuru osoarekiko	Emakume kopurua
1. maila	
2. maila	
3. maila	
4. maila	
Guztira	

*Maila bakoitzeko guztizko datuek bat etorri behar dute Hezkuntza Sailak «Eskola Jarduerako Estatistikak» txostenean jasotakoekin. Alderik egonez gero, azken datu horiek hartuko dira kontuan.

2020ko urriaren 13a, asteartea

VI. ERANSKINA
IRAKASKUNTZA ARAUTUA
IRAKASLEEN ZIURTAGIRIA

Zentroaren izena: _____

II. baremorako:

Plaza bakoitzeko irakasle titularren zerrenda eman behar da, oinarrizko mailan eta maila profesionalean matrikulatuta dauden eta laguntza jaso dezaketen ikasleei astean eskaintzen dieten irakas-denbora zuzena adierazita (irakasle bat lerro bakoitzean).

Orduak graduka							
		Oinarrizkoak		Profesionalak		Ordu guztiak	
	NAN edo inizialak*	Ord.	Min.	Ord.	Min.	Ord.	Min.
1							
	Guztira						
Guztira, minututan							

+ Lerro Berria

Astean euskaraz emandako minutu kopuru osoa:	
Emakumeen kopurua, irakasleen kopuru osoarekiko	

Irakas-denbora zuzena zera da: irakasleek ikasturte osorako dagozkien ikasleei irakasten emandako denbora.

*Irakasleen inizialak adieraztean, honako hurrenkera honi jarraituko zaio: bi abizenak eta izena. Bi abizenen lehenengo bi letrak eta izenaren lehenengo letra idatzi behar dira, guztira 5 letra eginez.

2020ko urriaren 13a, asteartea

VII. ERANSKINA

IRAKASKUNTZA ARAUTUA
LEHENTASUNA DUTEN ESPEZIALITATEETARAKO AGIRIA

Zentroaren izena: _____

II. baremorako:

2019-2020ko ikasturtean, lehentasuna duten espezialitateetan matrikulatu den ikasle-kopurua adieraziko da:

- Oinarrizko ikasketak:

Lehentasuna duten espezialitateak	1. kurtsoa	2. kurtsoa	3. kurtsoa	4. kurtsoa	Emakumeak	Guztira
Biola						
Biolontxelo						
Kontrabaxua						
Fagota						
Oboea						
Tronpa						
Tronboia						
Tuba						
Harpa						
GUZTIRA						

- Ikasketa profesionalak:

Lehentasuna duten espezialitateak	1.	2.	3.	4.	5.	6.	Emakumeak	Guztira
Biola								
Biolontxelo								
Kontrabaxua								
Fagota								
Oboea								
Tronpa								
Tronboia								
Tuba								
Harpa								
GUZTIRA								

VIII. ERANSKINA
IRAKASKUNTZA ARAUTUA
2019-2020KO IKASTURTEKO IKASLEEN DATUAK

Zentroaren izena: _____

II. baremorako: _____

1.– Irakaskuntza arautuetako ikasleak

Ikasle-datuen guztizko kopurua idatziko da, atalez atal berezita.

Ikasle batek espezialitate bat baino gehiago eginez gero, zenbatzeko orduan, espezialitate bat bakarrik hartuko da kontuan.

	Ikasleen kopurua	Emakumeen kopurua
Matrikulatuta dauden ikasleen kopurua. OINARRIZKO MAILA, GUZTIRA		
1. mailan matrikulatuta dauden ikasleen kopurua		
2. mailan matrikulatuta dauden ikasleen kopurua		
3. mailan matrikulatuta dauden ikasleen kopurua		
4. mailan matrikulatuta dauden ikasleen kopurua		
5. mailan matrikulatuta dauden ikasleen kopurua		
6. mailan matrikulatuta dauden ikasleen kopurua		
MAILA PROFESIONALA, GUZTIRA		
Guztira, OINARRIZKOA + PROFESIONALA		

*Datu horiek bat etorri beharko dute Hezkuntza Sailak «Eskola Jarduerako Estatistikak» txostenean jasotakoekin. Alderik izanez gero, instantzia kudeatzaileak azken datu horiek erabiliko ditu.

2.– Goi-mailako ikasketetan sartu diren ikasleak

2019-2020ko ikasturtean goi-mailako musika-ikastegi batean sartu diren ikasleen zerrenda:

	NAN edo inizialak*	Goi-mailako ikastegiaren izena	Kurtsoa	Espezialitatea
1				

+ Lerro Berria

*Ikasleen inizialak adieraztean, honako hurrenkera honi jarraituko zaio: bi abizenak eta izena. Bi abizenen lehenengo bi letrak eta izenaren lehenengo letra idatzi behar dira, guztira 5 letra eginez.

Emakume kopurua, goi-mailako ikasketetan sartu den ikasle-kopuru osoarekiko

2020ko urriaren 13a, asteartea



IX. eranskina - 2019/2020 IKASTURTEKO MEMORIA EKONOMIKOA -Diru-sarreraren eta gastuen taula

Eskolaren izena:		Toki-erakunde titularren kontu-hartzailearen sinadura eta zigilua	
Titularra:			
DIRU-SARRERAK: diruz lagundutako jarduerara bideratutako diru-sarrera guztiak zerrendatuko dira, tartean: ikasleen matrikulen ordainketak, toki-erakunde titularren ekarpena (udal-titulartasuneko zentroen kasuan), ekarpen propioa edo beste erakunde batzuek egindakoa, eta jasotako beste laguntza batzuk.			
JATORRIA		ZENBATEKOA	
Zentro eskatzailearen titulartasuna duen toki-erakundearen ekarpena (1)			
(1) Zentroak exekutututako gastuaren zer ehuneko hartzen duen toki-erakundearen ekarpen horrek (2019/2020 ikasturtea)		%	
Finantzaketa propioa			
Matrikulen ordainketagatiko diru-sarrerak			
Bestelako dirulaguntza publikoak, pribatuak, babesak...			
		Diru-sarrerak, guztira:	
		- €	
GASTUAK (exekutututako aurrekontua): diruz lagundu daitezkeen jarduerarekin zuzenean lotutako gastuak izan beharko dira			
KONTZEPTUA		ZENBATEKOA	
IRAKASLEEN GASTUAK		LANGILEEN KOPURUA IRAKASLEEN KOPURUA	
IRAKASLE EZ DIREN LANGILEEN GASTUAK		IRAKASLE EZ DIREN LANGILEEN KOPURUA	
		- €	
FUNTZIONAMENDU-GASTUAK			
IRAKASLEEN ETA IRAKASLE EZ DIREN LANGILEEN GASTUAK, GUZTIRA			
EKIPAMENDU-GASTUAK			
FUNTZIONAMENDU- ETA EKIPIAMENDU-GASTUAK, GUZTIRA			
		- €	

Jardueraren kostua, guztira	-€
Hasierako aurrekontua (2)	€
(2) Hasierako aurrekontuarekiko desbideratzeak (banakatu)	

2020ko urriaren 13a, asteartea

X. ERANSKINA
KOSTUEN JUSTIFIKAZIOA

Zentroaren izena: _____Erakundearen gastu osoa adierazi beharko da, **2019-2020** ikasturteari dagokiona.

Langileen kostuaren atalean (irakasleak eta irakasle ez direnak), titularrei zein ordezkoei dagozkienak jasoko dira.

1.– Irakasleak.

IRAKASLE-KOPURUA, GUZTIRA:				
NAN edo inizialak*	Soldatak (ordainsari gordina)	Gizarte Segurantzako kostuak	Beste batzuk (Elkarkidetzak, aseguruak...)	Guztira
Guztira				

2.– Irakasle ez diren langileak.

IRAKASLE EZ DIREN LANGILEEN KOPURUA:				
NAN edo inizialak*	Soldatak (ordainsari gordina)	Gizarte Segurantzako kostuak	Beste batzuk (Elkarkidetzak, aseguruak...)	Guztira
Guztira				

*Langileen inizialak adieraztean, honako hurrenkera honi jarraituko zaio: bi abizenak eta izena. Bi abizenen lehenengo bi letrak eta izenaren lehenengo letra idatzi behar dira, guztira 5 letra eginez.

Emakumeen kopurua, irakasleen kopuru osoarekiko:	
Emakumeen kopurua, irakasle ez diren langileen kopuru osoarekiko:	

3.– Funtzionamendu- eta ekipamendu-gastuak.

Ekipamendu-gastuak	Guztira
Funtzionamendu-gastuak	Guztira
FUNTZIONAMENDU-ETA EKIPAMENDU-GASTUAK, GUZTIRA	

Toki-erakundeko kontu-hartzailearen sinadura

2020ko urriaren 13a, asteartea

XI. ERANSKINA

HITZARMENA, EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAREN ETA- KO UDALAREN ARTEKOA, UDAL-TITULARTASUNEN MUSIKA-ESKOLAK ETA KONTSERBATORIO PROFESIONALAK SENDOTZEKO HELBURUAREKIN IZENPETUA

Vitoria-Gasteiz, 202X(e)koaren(a).

ELKARTURIK:

Alde batetik, Jokin Bildarratz Sorron, Hezkuntzako sailburua.

Bestetik,- ko alkatea / ...- ren ordezkaria

AZALTZEN DUTE:

Musika-irakaskuntzak irakaskuntza artistikoen erreferente nagusiak dira Euskadin. Tradizioz, xarma berezia izan dute gizartean, eta hori dela-eta toki-administrazioek eskaintzen dituzte.

Gizartean duten garrantziarengatik, udalen esfortzuagatik, eta herritarren prestakuntza sustatzeagatik, hezkuntzako administrazioak baliabideak kudeatu izan ditu, eremu hori antolatu, planifikatu eta finantzatzeko.

Ikasketa horietarako aurrekontuen bidez, irakaskuntza horiek Euskal Autonomia Erkidegoan normalizazio-prozesua izatea lortu nahi da, bai espazioan banatzeko orduan, bai eta irakaskuntza horietan ematen diren espezialitateak eta mailak orekatzeko orduan ere.

Musika-ikastegiaren helburu nagusia da tradizioan oinarritutako dantza eta musikaren alorretan prestakuntza praktikoa ematea, bai eta nahi dutenak irakaskuntza profesionaletarako gidatzea eta prestatzea ere. Kontserbatorioek eta baimendutako zentroek irakaskuntza arautua eskaintzen dute, eta musika-eskolek, berriz, irakaskuntza ez-arautua.

Dirulaguntza-programa honen bidez, ikastegiok mantentzen lagundu nahi da, Hezkuntza Sailak ematen dien finantzaketa ezarritako ehunekora hurbilduz.

Lehenengoa.– Hezkuntzako sailburuaren 202....ko ...aren ...(e)ko Aginduaren bidez (.....ko ...aren ...(e)ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeentzako deialdia iragarri zen, udalek laguntza-eskabideak aurkez ditzaten, udal-titulartasuneko musika-eskoletako eta kontserbatorio profesionaletako egungo eskaintza sendotzeko.

Bigarrena.–...ko Udalak, kultura eta musika hedatzeko jardueren barruan, eskabide hori aurkeztu du, aipatutako aginduari jarraituz.

Hirugarrena.– Hezkuntza Sailak, agindu horrek xedatutakoa oinarri hartuta, ...ko Udalak aurkeztutako eskabidea onartu du, eta, horrenbestez, hitzarmen hau sinatzen du, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Lege-esparrua

Hitzarmen honetan aintzat hartzen diren zehaztapenak bat datoz Hezkuntzako sailburuaren ...ko ...aren ...(e)ko Aginduan ezarritako esparruarekin. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeentzako deialdia iragarri zen, udalek musika-eskoletarako eta musika-kontserbatorio profesionaletarako laguntza-eskabideak aurkez zituzten.

Bigarrena.– Xedea.

Hitzarmen honen xedea da Hezkuntza Sailaren eta sinatzen duen udalaren arteko elkarlana formalizatzea, toki-erakunde horren titulartasuneko kontserbatorio profesionala mantentzen laguntzeko (abenduaren 11ko 229/2007 Dekretua) edo udalaren musika-eskola mantentzen laguntzeko (urriaren 27ko 289/1992 Dekretua), 2019-2020 ikasturteko kostuak finantzatzen laguntzeko, eta, azken finean, zentro horrentzako finantzaketa-esparru egonkor bat lortzeko.

Hirugarrena.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Diruz lagundu daitezke musika-ikastegien 2019-2020 ikasturteko irakasleen eta irakasle ez diren langileen gastuak eta ekipamendu- eta funtzionamendu-gastuak, musika irakastearekin zuzeneko lotura duen edozertarako.

1.– Langile-kostuak.

- Langile-gastuak honela zehaztuko dira: kostu garbia, gizarte-segurantza, eta bestelakoak (beste aseguru batzuk).
- Irakasle ez diren langileak beste erakunde batzuetan ere aritzen badira, haien kostuak proportzioan kalkulatuko dira, musika-eskoletan duten arduraldiaren kostua soilik kontuan hartuz.
- Zuzendaritza-lanen gastuak irakasle ez diren langileen gastutzat hartuko dira.

2.– Funtzionamendu-kostuak honako hauek dira:

- Azpiegituren eta tresna teknologikoen mantentze-, konponketa- eta kontserbazio-gastuak.
- Garbiketa-gastuak.
- Zerbitzuak: elektrizitatea, ura, gasa.
- Aholkularitzen eta zerbitzu juridikoen gastuak.
- Zentroaren aseguruak.
- Aparteko jardueretako bidaia-gastuak: joan-etorriak, mantenua, dietak.
- Marketin- eta publizitate-gastuak.
- Ustekabeko gastuak: konponketak, istripuak.
- Langileen kontratazioa kudeatzeari lotutako gastuak (azpikontratak edo kudeaketa-gastuak) funtzionamendu-gastutzat hartuko dira, eta ez langile-gastutzat.
- Irakasleen prestakuntzaren gastuak funtzionamendu-gastutzat hartuko dira.
- Musika-eskolak sortu bai baina onartzen ez dituen kostuak beste erakunde batzuek diruz lagundutako gastutzat hartuko dira, eta beste laguntza batzuen multzoan sartu beharko dira.
- Musika-eskolak beste erakunde batzuekin partekatzen baditu instalazioak, gastuak erakunde horien erabileraren proportzioan kalkulatuko dira (gutzizkoaren %).

3.– Baliabide materialei dagozkien gastuak ekipamendu-gastuak dira.

- Bulego-materiala. Material suntsikorra eta suntsiezina.
- Higigarriak.
- Erabiltzera eta zaintzera bideratutako tresnak eta materialak.
- Material didaktikoa: inprimatua, ikus-entzunezkoa eta multimedia.

4.– Gastu horiek IX. eranskinean jasoko dira (memoria ekonomikoa).

Laugarrena.– Onuradunak.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea indarrean jarri zenean Euskal Autonomia Erkidegoan zeuden musika-ikastegi hauen titular diren pertsona fisiko edo juridikoak, baldin eta hala inskribatuta badaude Euskal Autonomia Erkidegoko Ikastetxeen Erregistroko atal espezifikoan:

a)–Udal-titulartasuna duten musika-eskolak, urriaren 27ko 289/1992 Dekretuak arautuak, dagokion baimena baldin badute irakaskuntza ez-arautua emateko.

b) Udal-titulartasuna duten kontserbatorioak, abenduaren 11ko 229/2007 Dekretuak arautuak, dagokion baimena baldin badute irakaskuntza arautua emateko.

Bosgarrena.– Aldeen ekarpenak.

Proiektuan jasotako helburuak lortzeko eta proiektuko ekintzak gauzatzeko, sinatzaileek ekarpen eta konpromiso hauek hitzartu dituzte:

A) Toki-erakunde –udal– sinatzailearen aldetik:

A.1.– Ekarpenak.

– Giza baliabideak eta baliabide materialak, urriaren 27ko 289/1992 Dekretuan zehaztutakoak. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan musika-irakaskuntza espezifikoak, ez-arautua, ematen duten ikastegiak –musika-eskolak– sortzeko prozesua eta haien jarduna arautzen dira.

– Giza baliabideak eta baliabide materialak, martxoaren 15eko 303/2010 Errege Dekretuan zehaztutakoak. Dekretu horren bidez, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan araututako irakaskuntza artistikoak ematen dituzten ikastegiei –musika-kontserbatorio profesionalek– bete behar dituzten gutxieneko baldintzak finkatzen dira.

– Ikastegiari lotutako hainbat alderdi (kontrola, antolaketa, administrazioa, garbitasuna, mantentze-lanak eta beste zerbitzu batzuk) aintzat hartzeko eta bermatzeko behar diren langile egokiak.

– Hezkuntza-proiektuaren bideragarritasuna bermatzeko behar beste baliabide ekonomiko, alde batera utzita Hezkuntza Sailaren dirulaguntzen bidez lor daitezkeenak.

A.2.– Konpromisoak.

– Hezkuntza Sailetik jasotako dirulaguntza eman den helbururako bakarrik erabiltzea, hitzarmen honen bigarren klausulan adierazitakoari jarraituz.

– Jarraipen Batzordeari ematea esleituta daukan funtzioa betetzeko beharrezkotzat jotzen duen edozein dokumentazio osagarri.

– Haren titulartasuneko musika-eskolaren edo kontserbatorioaren funtzionamendua zuzenbidearen araberakoa dela bermatzea, bai antolaketari eta langileen erregimenari dagokionez, bai zentroak jasotzen dituen baliabideen kudeaketa egokiari dagokionez, honako hauen bidez: kalitate-programa bat, zerbitzu egokia eta herritar guztiek berdintasunean han izena emateko aukera izatea.

– Haren titulartasuneko musika-eskolaren edo kontserbatorioaren antolaketa-esparrua eta kostuak honako parametro hauetara egokitzeko mekanismoak ezartzea:

a) Irakaskuntza-jardunaren ordainketa gastu arruntaren % 75 izango da gehienez.

b) Administrazioiko eta zerbitzuetako langileen kostuak gastu arruntan duen eraginak ez du gaindituko guztizko gastu arruntaren % 11, eta kudeaketa ekonomikoa barne hartuko du, horrelakorik balego.

c) Ekipamendu- eta funtzionamendu-gastuek ez dute guztizko gastu arruntaren % 14 gaindituko.

– Ikasleentzat prezio publikoak ezartzea, eskolen kostuaren heren bat berdintzeko.

– Haren titulartasuneko musika-eskolaren edo kontserbatorioaren autofinantzaketarako bideak sustatzea.

B) Hezkuntza Sailaren aldetik:

B.1.– Ekarpen ekonomikoak.

Hezkuntza Sailak,ko aren (e)ko Ebazpenaren bidez –202x(e)ko aren (e)ko EHAA–..... euroko dirulaguntza eman dio toki-erakunde sinatzaileari –udalari–, bere titulartasuneko musika-eskolaren edo musika-kontserbatorio profesionalaren 2019-2020 ikasturteko kostuak finantzatzeko.

Horretarako beren-beregi eraturako Jarraipen Batzordeak ikuskatuko du betetzen dela laguntzaren xedea.

B.2.– Konpromisoak.

Toki-administrazioek eskaintzen dituzten musika-eskolen finantzaketa-prozesuarekin jarraitzea, Hezkuntza Sailaren finantzaketa Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean aurreikusitako ehunekora gerturatuz; hain zuzen ere, urtero dirulaguntzen deialdiak eginez eta hitzarmen honen baldintzetan, beste finantzaketa-hitzarmen bat izenpetu arte behintzat.

Seigarrena.– Jarraipen Batzordea.

Hezkuntza Sailak eta toki-erakunde bakoitzak izenpetutako hitzarmena behar bezala betetze aldera, Jarraipen Batzorde bat eratuko da, eta kide hauek izango ditu:

– Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendaria edo hura ordezkatzeko duen pertsona; batzordeburu jardungo du.

– Hezkuntzako ikuskatzaile bat, ikuskatzaile nagusiak izendatua.

– Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzako teknikari bat, idazkari jardungo duena.

– Eudel elkarteko ordezkari bat.

Jarraipen Batzordearen eginkizunak:

– Jarraipen Batzordeak gainbegiratuko du zenbateraino betetzen diren hitzarmena eta ikastegi bakoitzaren urteko plana, zeina udal-titulartasuneko musika-eskola edo kontserbatorio bakoitzaren esku egongo baita.

– Horretarako, Jarraipen Batzordeak, bigarren ordainketa egin aurretik, aztertuko du ikastegiak zer datu aurkeztu duten eskabidearekin batera, jarduera-memoria barne dela. Gainera, esleitu zaizkion eginkizunak betetzeko beharrezko ikusten dituen agiri osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu, eta ikastegiak gehienez bost eguneko epea izango du arrazoi edo justifikazio egokiak aurkezteko.

Agiria horiek aztertuta, Jarraipen Batzordeak txosten batean bilduko ditu bere balorazioak, gomendioak eta ondorioak. Txostena Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari helaraziko zaio, eta, hark oniritzia emanaz gero, azken ordainketa egingo da.

Zazpigarrena.– Dirulaguntza ordaintzeko epeak.

Eusko Jaurlearitzako Hezkuntza Sailak epe hauetan ordainduko du aurreko klausulan adierazitako dirulaguntza:

a) Lehenengo ordainketa: emandako dirulaguntzaren % 0,90, 8. artikuluan adierazitako hitzarmena sinatu ondoren, eta 17. artikuluan 1. apartatuan adierazitako epea igaro ondoren.

b) Bigarren ordainketa: gainerako zenbatekoa, % 99,10.

Zortzigarrena.– Betebeharrak ez betetzea eta itzulketa-prozedura.

Erakunde sinatzaileak –udalak– dirulaguntza eskatu eta eman zen helbururako erabiltzen ez badu, dirulaguntza emateko zergatia izan zen jarduera burutzen ez badu, dirulaguntza eskaeran adierazitako xedeetarako erabili duela justifikatzen ez badu, edo, orokorrean, ez baditu betetzen ...(e)ko ...(a)ren ..(e)ko Aginduan xedatutako betebeharrak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak 53. artikuluan xedatutako betebeharrak edo hitzarmen honetan adierazitakoak, jasotako diru-kopurua itzuli beharko du, bai eta sortutako legezko interesak ordaindu ere. Horretarako, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

Aipatutako diru-kopuruak diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako.

Bederatzigarrena.– Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmena sinatzen den egunean bertan jarriko da indarrean, eta 2021eko abuztuaren 30era arte egongo da indarrean.

Hamargarrena.– Berme-klausula.

Hitzarmen honetan sartu da bertan jasotako konpromiso finantzarioak betetzen direla bermatzeko klausula, betiere, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aipatutako legea betez, baimena ematen zaio Herri Dirubideen Euskal Kontseiluari sistema bat adostu dezan, EAEko Administrazio Orokorrak hitzarmena sinatu duen toki-erakundeari egin beharreko ordainketak ezarritako baldintzetan egiten ez badizkio egin gabeko finantza transferentziak atxikitzeko; hartara, sistema horren arabera, hurrengo aurrekontu ekitaldian egingo zaizkio ordainketok kaltetutako toki-erakundeari. Transferentzia hori konpentsatu beharko da ordaintzeko betebeharra bete ez zen aurrekontu-ekitaldiaren ondoz ondoko ekitaldiaren lehen hiru hilabeteetan.

2020ko urriaren 13a, asteartea

Hamaikagarrena.– Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta horrek dakartzan ondorioak izango ditu, berau aplikatzean ager daitezkeen gorabeherak ebazteko.

Ados daudela egiaztatzeko, interesdunek hitzarmen honen bi ale sinatzen dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

...ko Alkatea,
IZENA